

KARTEL TXAPELKETA

XLVII. ARABAKO DANTZARI EGUNA - ALEGRIA-DULANTZI

Arabako Dantzarien Biltzarrak (hemendik aurrera, ADB) XLVII. ARABAKO DANTZARI EGUNerako kartel lehiaketa deialdia luzatzen du, baldintzak hauek izanik:

1. Xedea eta helburua

- a. Deialdiaren helburua da 2026eko XLVII. ARABAKO DANTZARI EGUNA iragartzeko kartelaren diseinua aukeratzea, kolorez eta teknika askez egina.
- b. Sorkuntza bultzatzea eta artisten parte-hartzea sustatzea du helburu, baita festa honetara ahalik eta gehien hedatzen lagunduko duen diseinua saritzea ere.

2. Emateko prozedura

- a. Saria emateko prozedura jendarteko lehiakortasuna da. Saria emateko, aurkeztutako lanak konparatuko dira, haien arteko erlazioa ezartzeko, izendatutako epaimahaiak egindako balorazioaren arabera.

3. Sariaren zenbatekoa

- a. Saria 300,00€ -koa izango da, hartu-agiri moduan.

4. Parte hartzaileek bete beharrezko baldintzak

- a. Adin nagusiko edozein pertsona fisikok parte har dezake, bere nazionalitatea, sexua edo bizilekua edozein dela ere.
- b. Kanpo geratzen dira ekonomia- eta/edo merkataritza- jardueraren bat egiten duten enpresak eta pertsona fisiko eta juridikoak.

5. Hautagaien ezaugarriak

- a. Erabili beharreko teknika librea izango da: argazkia, marrazkia, collage, etab. Ezinbesteko baldintza da kartel-proposamena argitaratu gabea izatea, izangaiaren beste lehiaketa eta egiletza batean aurretik saritua ez izana.
- b. Hautagaiaren identifikazioa ahalbidetzen duen edozein sinadura edo marka digital aurkitzen bada, automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko litzateke.
- c. Kartelaren tamaina 420 x 297 mm-koa (DIN A3), bertikalean eta "pdf" eta "jpg" formatuan izango da. CMYK, 300 ppp-an (inprenta) eta RGB, 72 ppp-an (digitala).
Bestalde, kartelaren beheko partean bost zentimetroko tartea utzi behar da dagozkion logoak txertatzeko (antolatzailea, babesleak eta laguntzaileak).

- d. Testu hauek kartelean agertu behar dira (artistak nahi duen diseinu eta formatuarekin):
- Euskaraz: XLVII. ARABAKO DANTZARI EGUNA – ALEGRIA-DULANTZI
 - Euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzea aukeratu daiteke:
2026ko ekainak 6 / 6 de junio de 2026
12:00 **Kalejira** herrian zehar / **Pasacalles** por el pueblo
12:30 **Dantza erakustaldia** plazan/ **Exhibición de danzas** en la plaza
18:00-20:30 **Kontzertua** plazan / **Concierto** en la plaza
- e. Baldintza hauekin bat ez datozen lanak ez dira lehiaketan onartuko.

6. Hautagaitzen aurkezpena

- a. Lanak posta elektronikoko honetara bidali beharko dira adb@arabako.com, gaiari "ADE kartel lehiaketa" adieraziz, eta mezuan egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta NANaren fotokopia erantsiz.
- b. Nahi adina kartel aurkez daitezke.
- c. Kartela diseinatzerakoan ezin izango da adingabeen benetako argazkirik erabili.

7. Hautagaitzen aurkezpena

- a. Hautagaitzak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2026eko maiatzaren 15ean bukatuko da (barne).

8. Bateriaezintasuna beste sari batzuekin

- a. Lehiaketa honetara ezin izango da aurkeztu aurretik beste edozein lehiaketa edo lehiaketatan aurkeztu eta saritutako kartelik.

9. Bozketak

- a. Epaimahaia ADBn federatutako taldeak izango dira.
- b. 2026eko maiatzaren 16an, ADBko talde bakoitzak hiru lan onenak aukeratuko ditu, eta boto gehien dituen kartela, irabazlea izango da.
Finalisten artean berdinketarik balego, bigarren bozketa bat egingo litzateke egun baliadun bateko epean. Eta horrela irabazle bakarra egon arte.
- c. 2026eko maiatzaren 17an jakinaraziko zaio lehiaketa irabazteko proposatutako pertsonari, eta Facebooken, Instagramen eta www.arabako.com webgunean argitaratuko da.
- d. Saria banku-transferentzia bidez emango da.
- e. Azken erabakia ADBrena izango da eta apelaezina izango da.
- f. Kartel irabazlea ADBren jabetzakoa izango da, eta hark beretzat gordeko ditu kartela inprimatzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubideak. Halaber, gainerako lehiakideek eskubideak laga beharko dituzte sare sozialetan argitaratzeko.
- g. Lehiaketara aurkezteak berekin dakar baldintza horiek erabat onartzea.
- h. ADB askatasuna izango du lehiaketa esleitu gabe uzteko, baldin eta aurkeztutako lanen artean sariaren esleipendun izateko adinako kalitaterik ez balego.